



# KORRIKARI ONGIETORRIA EGITEKO PREST

Bihar goizean, 10:41ean, sartuko da eskualdean Korrika 16 Ikaztegietatik. Adunatik irtengo da 13:17 aldera **I+V**

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2009-04-01**

VIIURTEA 1.668.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Hautsi Izagirre, Marian Lazkano, Ainhoa Larrea eta Joxean Moskeira, atzoko aurkezpenean. ESTI EZEIZA

## VILLABONAN ETA ZIZURKILEN ANTZERKI JARDUNALDIAK

**KULTURA** Lehen aldiz, bi herriek indarrak batu dituzte ekimen hau antolatzeko; etzi hasiko da, eta guztira sei emanaldi izango dira **4**

## Kultur egitarau «orekatua» prestatu dute udaberrirako

**TOLOSA** Berrikuntza bezala Udalak antolatutako antzerki emanaldietan %30eko beherapena egingo dute, «antzerkia sustatzeko» **3**

## Aurrera-Saiazekoak «oso pozik» txapela jantzi eta gero

**PILOTA** VI. Berria Pilota Txapelketa irabazi dute estreinakoz; «oso polita» izan dela diote **5**

**Gipuzkoako  
Hontzek irabazi  
dute II. Beterri  
Bertsolari  
Txapelketa**

**BERTSOLARITZA** Arabako  
Otoak izan zituzten  
aurkari, final handian **6**

**Hirukide  
ikastetxean  
Elkartasun  
Kanpaina  
murgildurik**

**TOLOSA** Aurten Perun  
duten proiektua laguntzeko  
bideratuko dute bildutakoa **2**

**PREST**

**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA  
BIZITZERO  
**PREST!**

**ATE  
IREKIAK**

etorriko zarela jakinarazi!

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**  
**APIRILAK 25** - 11:00 larunbata **MAIATZAK 7** - 17:30 osteguna  
ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
**APIRILAK 4** - 10:00-13:00 larunbata  
OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

**APIRILAK 2** - 18:00 osteguna  
IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
**APIRILAK 23** - 18:00 osteguna **MAIATZAK 9** - 11:00 larunbata  
ESKORITATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

**Laburrak****Batxilerra eta Heziketa zikloi buruzko hitzaldia**

**HEZKUNTZA** ● DBHko 4. mailako gurasoentzat deialdia luzatu dute Orixe institututik. Hain zuzen ere, bihar, osteguna, Alberto Ariño orientatzailearekin ordubeteko hitzaldi informatiboa izango da, eta bertara joatera gonbidatzen dituzte. Batxilerra eta Heziketa Zikloi buruz ariko da, 19:00etatik aurrera, Gorosabel eraikuntzan.

**Pello Odriozolaren egoera salatzeko elkarretaratzea**

**POLITIKA** ● Hilero bezala, lehendabiziko ostegunean elkarretaratze-za deitzen du Lizardi Kultur Elkarrekin bere bazkidea den Pello Odriozolaren egoera salatzeko, eta «euskal preso politikoaren askatasuna eskatzeko». Bihar izango da lehen osteguna, eta ohi bezala, 19:00etan izango da elkarretaratzea, Plaza Zaharrean. Elkartetik salatzen dutenez, «dagoeneko zegoen zigorra baino 9 hilabete gehiagoz daukate espetxean bidegabeki».

**Ostiralean eta larunbatean musika zuzenean**

**MUSIKA** ● Egitarau oparoa antolatuta dute Bonberenean asteburu honetarako. Bi kontzertu izango dira ostiralean, eta beste bi larunbatean. Hain zuzen ere, Bad Sound System eta Niko izango dira ostiralean ariko diren taldeak, 22:30etik aurrera. Irungo Bad Sound System taldeak *Bad Sound System* disko berria aurkeztuko du, eta Italiako Niko taldea Hip-Hop musika eta erritmoak aurkeztuko ditu. Larunbatean, 22:30etik aurrera, Blood Sekeres, Naut eta Lines ariko dira. Hondarribiatik datoz beraien erritmo eta musika estiloak azagutuaraztera, eta Blood Seekers taldearen kasuan, euren maketa berria *Blood Sex and Rock N Roll* izenekoa aurkeztuko du.

**Film Laburren Zirkuitua bihar, Kultur Etxean**

**ZINEMA** ● Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Film Laburren Zirkuitua izango da bihar, Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. «Euskarazko film laburren urteko produktzioa ezagutaraztea, eta, bide batez, herrietako kultur eskaintza aberastea» da ekimen honen helburua. Aurtengoan, 2007-2008an ekoiztutako zortzi film labur ikusteko aukera izango da ordubete inguruko saioan. «Aurrekoetan bezala, ahalegina egin dugu ibilbide luzeko egileak eta egile berriak kontuan hartzeko», azaldu dute antolatzaileek. Hala, film laburrak ikusteaz gain, saio askotan solasaldia egingo da egileekin, proiektzioaren ostean, izan ere, «batzuek zein besteek biziki eskertzen dute iritzi-trukerako aukera».

Hirukide ikastetxean Elkartasun Kanpainan murgildurik daude; Peruko San Geronimo herrian duten proiektua laguntzeko bideratuko dute aurten bildutakoa; etzi egingo dute ekitaldi nagusia, Elkartasun Jaialdia, alegia.

# Perurekiko elkartasuna

INIGO TERRADILLOS

**U**rtero bezala Hirukide ikastetxean Elkartasun Kanpainan daude murgildurik. Munduko herrialde txiro bati laguntza ematea izaten du helburu ekimen honek, eta aurten Perura bideratuko dute laguntza. Hain zuzen ere, Peruko San Geronimo herrian kokaturik dagoen proiektua lagunduko dute diruz, horretarako hainbat ekintza burutuko dituztelarik.

Pasa den astean ekin zieten ekitaldiei, behin aurtengo proiektua klasez klase aurkeztu ostean. Hala, eukaristia izan zuten iragan larunbatean guraso, familia eta langileekin. Eskualdean bizi den Rita Calderon peruarrak bertako egoerari buruzko hitzaldia ere eman zuen, bertaratu zirenek Peru gertutik ezagutzeko aukera izan zutelarik, eta bertso afari ere egin zuten pasa den asteburuan. Pasa den astean, baita ere, antzerkia izan zuten Hirukideko ikasleek; hain zuzen ere, Dar Dar taldeak *Eta zer?* taularatu zuten Leidor aretoan.

Erakusketak ere badituzte ikusgai. Batetik, Peruko artisautzari buruzkoa, Hirukide Jesuitinetan, eta bestetik, Alboan Gobernu Kanpoko Elkartearena, ekitatearen ingurukoa, Hirukide Eskolapiotan.

Oraindik, ordea, kanpainaren ekitaldi nagusia geratzen zaie Hirukiden, izan ere, etzi dute Elkartasun Jaialdia, 17:00etatik aurrera,



Alboan elkartearen erakusketa ikusten hainbat ikasle. HITZA

Hirukide Eskolapiotan. Bertan, jolasak eta tailerrak izango dituzte, eta baita dantza lehiaketa ere. Ondoren afaria izango dute guztiek. Elkartasun Jaialdiaren aurretik Askari Solidarioa ere egingo dute etzi, 15:00etatik aurrera. Hau Hirukide Jesuitinetan izango da.

**Sorostegia San Geronimo**

Peruko leku pobreenetarikoa da San Geronimo. 400.000 biztanle bizi dira, eta horietatik %66a pobrezian. Herri honetan ez dute ospitalerik, eta medikuarengana joan behar dutenean, beste herri batera joaten dira. Gainera, gehienek ez dute osasun aseguru.

Duela 12 urte, Gainberri ikastetxeko erlijiosak hara joan zirenetik Sorostegi bat daramate boluntario batzuekin batera, baina beharrak

geroz eta handiagoak dira hango egoera dela-eta, eta horregatik hara bideratuko dute aurten Elkartasun Kanpainan biltzen dutena. Besteak beste, umeentzako jangela bat jarri nahi dute. San Geronimo herrian arazoa ez dago elikaduraren gabezia, proteina eta bitaminetan baizik. Horregatik, jangela jarri nahi dute, «eskolara doazen umeei janari orekatua eman eta hauen egoera soziala hobetzeko».

Hainbat bide dituzte Hirukiden proiektua lagundu ahal izateko dirua biltzeko; Hirukide ikastetxera laguntza eramanez, jaialdian eta askari solidarioan parte hartuz, edota ondorengo kontu korronte zenbakian sartuz: 21021006721000068296 (*Misioneras hijas del corazón de Maria* izenarekin).

## 0-1eko emaitzarekin irabazi dio Tolosak Amaiak Bat-i

**Futbola** » 49 punturekin daude tolosarrak hirugarren postuan, bigarrenetik puntu bakar batera.

ERREDAKZIOA

Oso partida borrokatua izan zen Amaiak Bat eta Tolosak asteburu jokatu zutena. Ez zen bi taldeen artean mailari dagokionez desberdintasun handiegirik nabaritu, sailkapenean dagoen desberdintasuna kontuan hartuta, baina hala ere, Tolosak eraman zituen hiru puntuak, 0-1 irabazi baitzuen.

Modu honetan, Ugartemendiak 15. minutuan sartu zuten golari esker, Tolosa berriro ere gora begira egoteko moduan dago. Izan ere, 49 punturekin hirugarren postuan daude tolosarrak, Hernani dago bigarren postuan 50 punturekin, eta Aretxabaleta liderra 55 punturekin.

Hurrengo partida 17. postuan dagoen Zumaiaokoren aurka dute.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

**OSASUNA.**

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Herialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

**Tolosak.**

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen.: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

**GARRAIOAK.**

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

**BESTERIK.**

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurreamendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



## «Soldata bera lan berarengatik»

**OSASUNA** ● Lurreamendi egoitzako Zu eta Biok azpikontraturik langileek elkarretaratzea egin zuten atzo, Tolosako udaletxearen aurrean. «Lurreamendi Egoitza Udal erakundea da, eta bertan lan egiten du-

gun langileok, kategori berdinetan soldata-eskala bikoitza jasaten ari gara. Langileok diskriminazio honenkin bukatu nahi dugu» adierazi zieten lurreamendiko lehendakariari eta Tolosako alkateari. HITZA

# Egitarau «orekatua» osatu dute udaberria kulturaz betetzeko

**Tolosa** » Antzerkia bultzatu asmoz Udak antolatutako saioetako sarreretan %30eko beharpena egingo dute.

REBEKA CALVO

Tolosako Udako Kultura Sailak udaberriko antolatutako egitarau «orekatua» osatu du; «batetik, ikuskizun desberdinak ikusteko aukera izango delako, antzerkia, musika, dantza... Eta bestetik, kanpoko zein herriko jendearen emandialdiak izango direlako. Egitaraua, gainera, adin guztietatik begira osatu dugu», zehaztu zuen Andoni Iturzaeta Kultura Zinegotziak.

Era berean, Iturzaetak «izen garrantzitsuak» ekartzeko egindako esfortzua ere azpimarratu zuen: «Benito Lertxundik *Itsas ulu zolia* diskoa aurkeztuko du, lan berria kaleratzerakoan beti etortzen da eta Tolosara aurkeztera. 100% Tricicle ere izango dugu eta estatu mailako estreinaldia izango da». Aipatu behar da, zentzu honetan, %100 Tricicleko kideak ez direla betiko Tricicle, «faktoria berdinekoak dira, baina beste hiru pertsona dira; Tricicleren *sketchik* interresgarriak eskainiko dituzte eta

baita zenbait berri ere», esan zuen Irene Larraza Kultur Teknikariak.

Apirilerako antolatutako beste ekitaldien artean Euskal Herriko Ikasleen Orkestrak eskainiko duen kontzertua eta Angel Unzu gitarra-jotzaileak Aranburu Jauregian eta doan eskainiko duen emanaldia aipatu behar dira. «Unzu Mariano Arsuagak Aranburu jarriko duen *Kaleidoskopia+12* erakusketaren barruan eskainiko du emanaldia», argitu zuen Larrazak.

Aipatu behar da Kultura Sailak herriarrik antzerkiera erakartzeko Udakal bakarrik antolatuko dituen emanaldietako sarreretan %30eko beharpena egingo diete la Gazte-Txartela, jubilatuen txartela eta familia ugarien txartela dutenei, hori bai sarrerak Leidorreko leihatilan erosi beharko dira aldeaz aurretik. Udaberriko egitarauaren *Ate Jokak* eta 100% Tricicleren emanaldiak izango dute %30eko beharpena. *Ate Jokak*, gainera, bi tolosarrek hartzen dute parte Sara Cozarrekin batera, Iker Galartzak eta Joseba Usabiagak, hain zuzen.

## Mundua Tolosan

Mundua Tolosan ekimenaren barruan udaberriari bi kontzertu eskainiko dituzte, izan ere hiru au-



Andoni Iturzaeta eta Irene Larrazak egin zuten aurkezpena. R. CALVO

rreikusi bazituzten ere hirugarrena udazkenara atzeratu dute. Horiek horrela, Wim Mertens pianista izango da maiatzaren 29an eta Dulce Pontes abeslaria ekainaren 6an. Mertens oso artista berezia da, Tolosako ikuskizunean ahotsa,

pianoa eta harizko boskotea izango dira protagonistak. Belgikako artistak inprobisazioa maite du eta Mikel Laboaren antzera ahotsa beste instrumentu bat bezala ulertzen du kantuetako hitzak berak ere sortzen dituelarik askotan.

## » EGITARAUA

### Apirila

■ **Hilak 3.** Benito Lertxundiren kontzertua, 20:30ean Leidor antzokian. Sarrerak ia agortze dir.

■ **Hilak 4.** Mariano Arsuagaren *Kaleidoskopia+12* erakusketaren inaugurazioa Aranburu Jauregian, maiatzak 16 arte egongo da.

■ **Hilak 18.** Euskal Herriko Ikasleen Orkestra 19:30ean Leidorren.

■ **Hilak 19.** Naturaldia Tolosaren barruan *El Roto. 'Agua Tinta'* erakusketatik irekiko dute Aranburu Jauregian, maiatzak 17 arte egongo da zabalik.

■ **Hilak 25.** Clownic taldeko %100 Tricicleren emanaldia 20:30ean Leidor antzokian.

■ **Hilak 30.** Angel Unzuren emanaldia Aranburu 20:00etan.

### Maiatza

■ **Hilak 9.** *Ate Joka* antzerkia 20:30ean Leidor antzokian.

■ **Hilak 17.** Udaberri Dantza Taldeko ikasleak eta Musika Eskolako Ikasleen Bandaren emanaldia 12:00etan Leidor antzokian.

■ **Hilak 22.** Iñaki Moreno Ruiz de Eguinoren erakusketaren irekiera Aranburu Jauregian, bertan izango da ekainak 27 arte.

■ **Hilak 23.** Txirri, Mirri eta Txiribito Junioren emanaldia 17:00etan Leidor antzokian.

■ **Hilak 29.** Wim Mertensen kontzertua 20:30ean Leidor antzokian (Mundua Tolosan).

### Ekaina

■ **Hilak 6.** Dulce Pontesen kon-

Dulce Pontesek, aldiz, Portugalgo fadoen tradizioa eta musika garaikidea uztartzen ditu eta *Momentos* diskoa aurkeztuko du. Disko honetan bere ibilbideko unerik garrantzitsuenak jaso ditu.

Erakusketek dagokionez, besteak beste, Mariano Arsuagaren eta Iñaki Moreno Ruiz de Eguinoren lanak izango dira ikusgai Aranburu Jauregian.

### Bestelako ekitaldiak

Bestalde, maiatzaren 1etik 3ra Gipuzkoa Encounter egingo dute, lore eta landare azoka maiatzaren 31etik ekainaren 7ra bitarte izango da, Artisausta Azoka ekainak 4 eta 7 artean, Turkiari buzuko *Turkesa* izeneko Kultur Astea izango da ekaina hasieran eta ekainaren 5eko Ingurumenaren Mundu Mailako Egunarengatik ekintza ugari ere egingo diuztela argitu zuten Kultura Saileko arduradunek.

tzertua 20:30ean Leidor antzokian (Mundua Tolosan).

■ **Hilak 13.** Tolosako Udak antolatutako dantza tailerreko ikasleak 16:30ean Leidor antzokian.

■ **Hilak 19.** Samadhana Dantza Eskolako emanaldia 19:00etan Leidor antzokian.

■ **Hilak 19.** Kultur tailerreko ikasleen erakusketak Aranburu Jauregian uztailek 4 bitarte.

■ **Hilak 26-27.** Tolosa&Blues jaialdiko konzertuak herriko gune ezberdinetan.

### Uztaila

■ **Hilak 3.** Tolosako Udak antolatzen dituen antzerki tailerreko ikasleen emanaldia 22:30ean Leidor antzokian.

## Emaitza onak lortu ditu Gimnastika Erritimikoko taldeak

**Ibarra** » Belabieta taldeko alebin taldeak lehen postua eskuratu zuen larunbateko B mailako eskolen arteko txapelketan.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Belabieta Gimnastika Erritimikoko taldeak oso emaitza onak lortu zituen pasa den larunbatean Belabieta kiroldegian izan gako B mailako eskolen arteko txapelketan. Alebin taldeak lehen postua eskuratu zuen eta haurrenak, berriak, bigarrena.

Banakakoei dagokionez, alebinetan Idoia Ezeizak eta Laida Olazabalek lehen postua irabazi zuten, Irene Bengoetxea laugarren izan zen eta Maddi Beloki bosgarren. Hauek guztiek sokarekin

egin zuten lana. Haurren mailan, aldiz, Maider Zabalak irabazi zuen eta pilotarekin egin zuen lana.

Bestalde, A mailako bigarren fasea orain 15 egun jokatu zuten Astigarragan eta hor ere Belabietak emaitza bikainak lortu zituen.

Kadeteen taldeak bigarren egin zuen eta bakarka Izaro Esnaola gazteak ere bigarren postua eskuratu zuen.

B mailako kadeteetan Onintza Odrizolak bigarren egin zuen eta Irati Maritzalarrek zazpigarren. Jubenil A mailan, aldiz, Garazi Egiurenak bigarren egin zuen.

Ibarrako Gimnastika Erritimikoko hurrengo erronka, beraz, Gipuzkoako Txapelketa izango da; A mailakoek Bergaran izango dute hitzordua maiatzaren 16an eta B mailakoek Tolosan, maiatzaren 23an.

## ■ Laburrak

### Aierbe omenduko dute Gasteizeko unibertsitatean

**IBARRA** » Gasteizeko Letren Fakultateak omenaldia egingo dio gaur 17:30ean Axun Aierbe ibartarrari. Aierbe orain urte bete zendu zen eta bertako irakasle eta dekanorde izan zen, horregatik egingo diote omenaldia familiarekin batera. Unibertsitateko irakasle izan aurretik Aierbe Ibarrako Udako itzultzaile, liburuzain eta hikuntza teknikaria ere izan zen, eta baita Galtzaundi Euskara Taldeko sortzaileetako eta lehendakaria ere.

### Energia berriztagarrien inguruko hitzaldia

**BERASTEGI** » Berastegiko Aldin Kultur Elkartek *Energia berriztagarrien aplikazioa eta praktikotasuna* izeneko hitzaldia antolatu du ostiral honetarako, hilak 3. Hitzaldia 20:00etan izango da herriko Gaztainondo Jubilatutako Elkartearen eta Sinergia Sostenible taldeak eskainiko du.


## 38 bat motorzale, Langostinoren irteeran

ERREDAKZIOA

Langostiko Moto Kultur Elkateak 2009an egindako bigarren irteera pasa den igandean izan zen eta 38 bat motorzale hartu zuten parte. 09:00etan atera ziren Ibarrako plazatik eta handik Ororbiara joan ziren hamaiketako egitera. Han-

dik Nafarroara joan ziren berriz ere herrira itzuli aurretik.

Nahiz eta eguraldi aurreikuspenek euria eta elurra iragarri azkenean ez zen horrela izan; lehen 160 kilometroetan ez zuten euririk izan eta ondorengo bi gainetan ez zuten elurrik topatu.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Lehen Antzerki Jardunaldiak egingo dituzte Zizurkilen eta Villabonon

**Kultura** » Aiztondo bailarako bi herriek bat egin dute; lehen emanaldia etzi izango da eta guztira sei saio izango dira ikusgai.

## ESTI EZEIZA

Villabonako eta Zizurkilgo udalek, indarrak batuz, antzerki jardunaldiak antolatu dituzte. Lehendabiziko emanaldia etzi izango da, eta hilaren 30a bitartean beste sei emanaldiz gozatzeko aukera izango da. Tartean, eten bat egingo dute, Aste Santuetako oporrak dirrela eta.

Atzo aurkeztu zuten ekimena bi udaleko ordezkariak. Alde batetik, Marian Lazkano, Zizurkilgo alkatea izan zen, eta bestetik, Hautsi Izagirre, Villabonako kultur zinegotzia. Beraiekin batera izan ziren, Joxean Moskeira eta Ainhoa Larrea kultur teknikariak.

Orain arte, hainbat urtetan antolatu izan dute Zizurkilen Antzerki Astea. Honenbestez, Marian Lazkanoren hitzetan «aspalditik dute zizurkildarrek antzerkirako zaleatasuna». Baina aurretik, estreina-koz, Villabonako Udalarekin elkarlanean, Lehen Antzerki Jardunaldiak prestatu dituzte.

Hautsi Izagirrek azaldu zuenez atzo, «adin guztietako jendearengan pentsatuz, egitarau anitza atontzen saiatu gara. Bestalde antzerkikira joateko ohitura handiegirik ez dago gurean, eta horregatik, bi herrietako indarrak batzea erabaki dugu» gaineratu zuen.



Atzo goizean aurkeztu zuten ekimena, Hautsi Izagirre, Marian Lazkano eta Joxean Moskeirak. E. EZEIZA

## » ZIZURKIL ETA VILLABONAKO ANTZERKI JARDUNALDIAK

### Apirilak 3, etzi

#### ■ 'Lo que ellos ignoran de ellas'.

Villabonako Gurea antzokian izango da emanaldia, 22:00etan.

### Apirilak 24, ostirala

#### ■ 'Kanpaik jo bitartean'.

Glu glu ekoiztetxearen lana Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean izango da ikusgai, 22:00etan.

### Apirilak 25, larunbata

#### ■ 'Malabrikers'. Zizurkilgo Pedro

Mari Otaño plazan izango da emanaldia hau, 19:00etan.

### Apirilak 27, astelehena

#### ■ 'Kanpanilla eta Peter Panen itzala'.

Txalo ekoiztetxeak aurkeztuko du lan hau Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean, 15:15ean. Emanaldia hau 3-6 urte bitartekoei zuzenduta dago.

### Apirilak 28, asteartea

#### ■ 'Eta zer?'. Dar-Dar ekoiztetxea-

ren eskutik, 09:15ean eta 11:00etan ikusteko aukera izango da emanaldia hau, Villabonako Gurea antzokian. Saio hau, bereziki, Zizurkil eta Villabonako LHko ikasleei zuzendua dago.

### Apirilak 29, asteazkena

#### ■ 'Pedro Mari Otaño eta San Millan ikastetxeetako haurren emanaldia'.

Hainbat sketch eta antzezlan prestatu dituzte gaztetxoek, azken asteetan, eta hauek

### Lehen emanaldia, etzi

Antzerki jardunaldiei komedia batekin emango diote hasiera. Erre ekoiztetxeak *Lo que ellos ignoran de ellas* lana aurkeztuko du. Sarreak Gurea antzokian bertan erosi daitezke 8 euroren truke. Gazte txartelarekin berriz, 2 euro merkeago izango da.

Obra hau emakume bat intimitatean tratatzeko moduari buruzko ikasgai zuzena da. Bertan, emakume batek lehenengo aldiz izaten ditu sexu-harremanak eta bere bi lagunik onenerengan honek duen eraginari buruz hitz egiten du. Yolanda Garcia Serrano da antzezlanaren egilea eta zuzendaria.

Bestalde, gizonezkoentzat ikastaro bizkor bat ere bada, sexu-harremanak nola izan ikas dezaten. Horregatik, Erre ekoiztetxeak, emakumeek antzokira beraien mutil-lagunak eramateko gomendatzen dute, «ikas dezaten».

Hurrengo saioa Aste Santuen ostean izango da, hilaren 24an hain zuzen ere. Glu glu taldekoek *Kanpaik jo bitartean* lana aurkeztuko dute Zizurkilen. Emanaldia honetarako sarreak hiru eurotan egongo dira salgai. Gainontzeko ikuskizunak berriz, doakoak dira.

ikusteko aukera izango da Atxulondo kultur etxean, 11:00etatik aurrera.

### Apirilak 30, osteguna

#### ■ 'Lehiaketa'.

Trapu Zaharrak taldeak obra hau aurkeztuko du Villabonako Malkar plazan (Gurea zinemaren ondoan dagoena). Emanaldia 11:00etan hasiko da. Zizurkil eta Villabonako DBHko ikasleei zuzenduta dago bereziki, ekitaldia.

# Beteranoen Europako Txapelketan hirugarren izan da Martinez de Rituerto

**Atletismoa** » Italian jokatu ziren pista estaliko probak joan den astean; bertan lehiatu zen tolosarra, Armando Rocarekin batera.

## ERREDAKZIOA

Atletismoko Pista Estaliko Beteranoen Europako Txapelketa jokatu zen joan den astean, Anconan (Italia). Martxoaren 25etik 29ra bitartean izan ziren probak eta bertan lehiatu ziren bi tolosar, Armando Roca eta Andu Martinez de Rituerto.

Armando Roca 70-74 urte bitartekoaren kategorian aritu zen, eta 60 metroko lasterketan finalerako sailkatzea lortu zuen. Honetarako egin zuen denbora, 9 segundo eta 18 ehuneneko izan zen. Azken



Pentathlon proban hirugarren geratu zen Andu Martinez de Rituerto. HITZA

proban arazoak izan zituen irteeratik eta zortzigarren geratu zen, 9 segundo eta 42 ehuneneko markarekin. Kategorian azken urtea duela eta zegoen maila ikusita, po-

zik egoteko moduko emaitza lortu zuen.

Andu Martinez de Rituerto 40-44 urtekoaren artean aritu zen. Pentathlon proban hirugarren sailka-

tu zen, 3.439 punturekin. Proba ezberdinetan lehiatu zen, eta hauek izan ziren bakoitzean lortutako emaitzak: 60 metro hesietan, 9 segundo eta 56 ehuneneko; luzera jautsian, 5 metro eta 88 zentimetro; pisu jautsietan, 9 metro eta 81 zentimetro; altuera jautsian, metro bat eta 78 zentimetro; azkenik, 1.000 metroetako lasterketan, 3 minutu eta 5 segundo. Oso proba lehiatua izan zen, eta diferentzia gutxi egon zen hiru, lau eta bosgarren geratu zirenen artean. Martinez de Rituerto oso pozik agertu zen emaitzarekin, «ixaropen txiki bat banuen ere, ia ezinezkotzat jotzen bainuen dominaren bat lortzea» zioen emaitza jakin ostean. Izan ere, hasiera batean, bere helburua lau edo bosgarren geratzea zen, nahiz eta bederatzigarren markarekin aurkeztu.

# Korrikaren amaierako festara, autobusez joateko aukera

## ERREDAKZIOA

16. Korrikak Gasteiz izango du helmuga, eta hau ospatzeko egun guztirako festa izango da bertan, igandean. Hara joan nahi dutenentzat autobus antolatu dituzte.

Andoingo Txoperatik irtengo da 08:45ean, gero, geldialdia egingo du Villabonako Olaederra kiroldegian, 09:00etan. Ondoren, Tolosan, 09:15 aldera izango da Santa Klaran, eta azkenik, Ibarako Kultur Etxearen aurrean, 09:20 aldera izango da. Txartelak erosteko epea gaur amaitzen da, eta ondorengo lekuetan egin daiteke: Villabonako Irtartzar tabernan, Tolosako Rakun eta Ibarako, Atari eta Zubiaurren. Helduei 10 euro kostako zalea, eta 20 urtetik beharkeoi, 7 euro.

# Aurrera-Saiatz: «Berriako garaipenak pozik egoteko arrazoiak eman dizkigu»

**Pilota** » 2004an ere finala jokatu zuten, Zazpi-Ilturriren aurka baina orduan ez zuten irabazi.

## NEREA URBIZU

Aurrera-Saiatz pilota eskolak «pozik» egoteko arrazoiak dauzka. Lortu duten azkena VI. Berria Txapelketako irabazleak izatea da. «Oso pozik gaude, halako txapelketa bat irabazita, kategorikoa». Aurrera-Saiatzek ezagutzen zuen txapelketa honetako finala lehenengo edizioan Zazpi-Ilturriren kontra galdu ondoren, baina ez zuen txapela ezagutzen.

Luis Galarraga Aurrera-Saiatz pilota eskolako delegatuak «halako finala espero» zuen. Irurtzun arerio gogorra zen eta «finalak halakoak izan ziren: kadeteen artean 22-19 irabazi genuen, eta egia esan, garaipen errazago bat espero genuen. Hala ere, uste dut guk irabaziko genuela bi pilota eskolek genekiela». Kadeteen 22 puntuak «aurrera jarraitzeko dosi handia izan zen». Kadeteen partida Labaka-Arratibelek jokatu zuten, eta «oso itxura ona eman zuten bielik».

Jubenilen artean, Apeztxea-Zinkunegi aritu ziren eta 22-11 galdu zuten. «Borrotkatzen hasi ziren baina alde egin ziguten Irurtzungeok. Ansotegi bikain aritu zen: bat hazten edo morala hartzen hasi zenean besteari gainbehera hasi zen».

## Nagusien artekoa erabakigarri

Nagusien artekoan 22-11 irabazi zuten Aurrera-Saiatzkoek, eta «bagenekien bikoteak berea eginda



Aurrera-Saiatzek finalerdia Tolosan jokatu zuen. Irudian, Renobales lurrean eta erdian Galarraga. ESTI EZEIZA

irabaziko zuela. Biek oso partida ona jokatu zuten; Galarragak asko jo zuen eta Renobalesek tantoak bukatu zituen aurrean». Lehen hiru tantoetan berdinduta zeuden bi bikoteak, Aurrera-Saiatz alden-tzen hasi zen arte.

Finala Zazpi-Ilturriekin jokatu da, talde askok gustura jokatzeko dute txapelketa hau: talde bezala jokatzeko da eta klubentzat moral handikoa da. Gainera, kantxaritzen diren pilotariak onak dira, partida politik ikus daitezke».

Finala Zazpi-Ilturriekin jokatu da, beste batean finala galdu genuen eta oraingoan irabazi dugu, oso pozik gaude».

Galarragarekin jokatu du txapelketa, beste askotan bezala. «Beti batera jokatzeko dugu eta bien artean konfidantza handia dago. Elkar oso ondo ezagutzen dugu eta uste dugu bikote indartza osatzen dugula».

Hernanin jokatu zuten finala eta

giro oso ona egon bazen ere, «jende gehiago espero nuen frontoian».

## «Klubak irabazitako saria da»

Ugaitz Renobales alegiarrak badaki zer den finaletan aritzea. Berria Txapelketako finaleko azken partida Eneko Galarragarekin batera jokatu zuen, Irurtzunge Ollotxeberriaren kontra, eta 22-11 irabazi zuten. «Egia esan, final gogorragoa espero nuen. Final hau irabaztea inportantea zen guretzat, beste batean finala galdu genuen eta oraingoan irabazi dugu, oso pozik gaude».

Galarragarekin jokatu du txapelketa, beste askotan bezala. «Beti batera jokatzeko dugu eta bien artean konfidantza handia dago. Elkar oso ondo ezagutzen dugu eta uste dugu bikote indartza osatzen dugula».

22-11 izan zen emaitza, eta horri

begira, ez dirudi gogorra izan zenik, eta erraza izan zela, «baina gogorra izan zen. Tantoak hasieran borrotkatuak izan ziren, baina lehen esan bezala, egia da final zailago bat espero nuela. Guri dena ondo ateratu zitzaigun».

Azken partidak erabakitzen zuen txapelduna, bi pilota eskolek partida bana irabazita baitzuten. Horrek nagusien presioa areagotu zuen. «Galarragak dominatu egin zuen eta nik, defentsa lana baino, gehiago eraso nuen».

Txapela «guk irabazi genuen, baina klub osoaren izenean eta horregatik da berezia. Ilusio handia egin dit irabazteak, eta klubaren izenean jaso dugula jakinda, are etagehiago. Luis Galarraga, Anizeto Lazkano eta Andres Aramendi begiraritzen genituen eta oso pozik zeuden». Sari hau «beraieie eskaintzeko balio izan du. Lanean jarraitzeko ilusioa ematen du honek».

## Altzotarrek ere korrika egingo dute, Altzoazpitik pasatzen denean

**Alto** » Bihar arratsaldean Korrika Txikia egingo dute, eskolatik hasita herriko plazaraino joango direlarik.

## ERREDAKZIOA

Korrika 16 bihar pasako da Tolosaldean, eta egun batean ala bestean, herri gehienetan honen inguruko ekitaldiak egiten ari dira. Altxon, esaterako, bihar Korrika Altzoazpitik pasako da, hasiera batean, 11:10ean. Eskolako 3. eta 6. ikasgela bitartekoak jaitziko dira Altzoazpira herritarrekin batera eta korrika egingo dute.

Udalak erositako kilometroaren parte bat Aitor Olano txirridulari altzotarrak egingo du eta eskolako ikasleren batek beste zatitxo bat: zozketa bidez erabakiko da zeinek egingo duen korrika.

Korrika Txikia 15:45ean izango da, eskolatik lekuko aldatuz joango delarik, plazaraino beti ere. Plazan, Korrikaren kanta abestuko dute.

Etzi, ostirala, *Bidaia intimoak* ikusteko aukera izango da. Jon Maiak zuzendutako eta ekoiztutako dokumentala da eta bertan, lau euskaldunen bizipenak kontatzen dituzte lau pertsonaia hauek. Euskaldun asko euren kasuekin identifikatzen dira, eta asko hunkitu egiten dira. 18:30ean hasiko da, Altxoko Udal ekintza aretoan.

## Laburrak

### Haur Liburuaren Eguna gaur gogoratuko dute

**BIDEGOIAN** • Bidegoianen, biharko egunean beharrez, gaur gogoratuko dute Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna. Horregatik, liburategian ipuin-irakurketak egingo dituzte hainbat herritarrek. Guztia 17:15ean hasiko da eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Galitzagorriren proposamena izan da honakoa eta originalak izateagatik sari bat jaso dute.

### Etzi autoestimari buruzko hitzaldia izango da

**IKAZTEGIETA** • Etzi 17:00etan, Kutzako Gizarte Ekintzak antolatutako hitzaldi bat egongo da Ikaztegieta Udal Liburutegian. Gaia honakoa da: *Onizate pertsonalera gomendia: autoestima*. Helburuak hauek dira: nor bere burua onartzeko eta baloratzeke erremintak eskaintzea, nolako harreman estua duen autoestimik bizitzan gustura egotearekin... Herritarrek gonbidatuta daude.

# Txolarreren azken bertso afaria, Tolosan

## ERREDAKZIOA

Txolarre herri irratia *Kabitik Plazara* ekimena antolatu du eta azken bertso afariari heldu beharrean gaude: Tolosan larunbatean izango da, Iurre Elkartearen.

Kasu honetan, Bixente Gorostidi, Jexux Mari Irazu eta Anjel Mari Peñagarikano izango dira bertsoari. «Hiru bertsolariak eskualdekoak dira, irratia bezala. Horrek inguruaren ezagutza izateak, saio gertukoagoa egiten lagunduko du».

Afalosteko saioak bi zati izango ditu: lehen zatian gaiak jarrita ariko dira, Igotz Alkortaen esanetara. Bigarren zatian, librean kantatuko dute. 21:00etan hasiko den afaria ez da nolana izango: zizka-mizka hotz eta beroak, en-



tsalada epela, txerri azpizuna patata pure eta hirugiarrarekin, tarta izoztua, kafea eta kopa. Guztia, bertsoak, afaria eta Txolarre Irratiari laguntzea, 25 euroren truke.

Sarrerak salgai daude Iurre Elkartearen, Raku tabernan eta Galitzagorriaren artean. Larunbatean arte izango da txartelak eskuratzeko aukera. «Saio umoretsua egiten saiatuko gara. Irratia abiapuntu hartuta egindako gaiak erantzun beharko diete bertsolarietara», adierazi du Alkortaek. Afaria 21:00etan hasiko da.

«Txolarrerik eskerrak eman nahi dizkiegu Iurre elkarteak arduraduneri, afari hau antolatzen lagundu digutelako. Eta baita bertsolarietara ere, beti azaldu direlarik Txolarreri laguntzeko prest».



# Beterriko II. Bertsolari Txapelketa Gipuzkoako Hontzek eraman dute

**Bertsolaritza** » Aurrez aurre Arabako Otsok izan zituzten gipuzkoarrek, Urnietan jokatu zen final ederrean.

## ERREDAKZIOA

Beterriko II. Bertsolari Txapelketa baditu irabazleak. Gipuzkoan geratu zen azkenean saria, bertako Hontzek eraman baituzten. Aurrez aurre Arabako Otsok aritu ziren final handian, Urnietako Oianume jatetxean. Jendetza bildu zen bertan, goiz hasi zen gainera bertaratzeko. Hain zuzen, zortzi eta erdiatarako Oinanumeko jangela beteta zegoen, eta afariari hasiera eman ahal izan zioten bertaratuak.

Biek taldeek ere oso lan txukuna egin zuten egokitutako kanporaketa saioan eta, beraz, ikuskizuna ziurtaturik zegoen.

Afalostean, prest ziren bi taldeak; batetik, Arabako Otsok Iñaki Viñaspre, Manex Agirre eta Oihane Perea. Talde honetan aldaketarik izan zen azken unean, Andere Arriolabengoa bertsolariaren ordez Oihane Perea etorri baitzen finala jokatzerako.

Bestetik, Gipuzkoako Otsok Jokin Labayen, Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde. Lehen agurra etxetik taldeka prestatuak ekarri behar zuten bertsolariak, eta agur horrekin saioari hasiera emateko agindu zien Amaia Agirre gai-emalleak.

## Gipuzkoarrek, eliz mutilak

Hala, zozketan lehen agurra gipuzkoarrei egitea egokitu zitzaion: Jokin Labayen, Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde gotzain, praile eta elizmutilez mozorroturik azaldu ziren jangelara eta ikus-entzuleen artean hainbat bedeinkazio banatu ondoren bertso-meza gisako bat eskaini zuten. Lizarraldek bete zituen apaiz lanak. Eliz-liburua eskuan, berez Xenpelarren bertso-bilduma zena, bertsoaren hamar mandamentuen berri eman zuten. Hamar bertsolari ezagunen erreferentziak eta bertso ezagunak izan zituzten oinarri:



Gipuzkoako Hontzek irabazi zuten Beterriko Bertsolari Txapelketa, arabarren aurkako finalean. HITZA

*“Bertsoaren hamar mandamentuak, Egañaren liburutik... Lizaso-ren liburutik...”*

## Arabarrak, ume txikiak

Gipuzkoarren ondotik umez jantzitza sartu ziren arabarrak, indarretsu, ausart, lotsagabe, ahotsa behartuz eta umeenera egokituz. Jendearen txalo zaparrada merezi izan zuten arabarrek dudarik gabe.

Kanporaketetan izan ziren ariketak ez ziren gehiegi aldatu, eta Alberdi eta Agirrekin zioten zortziko txikian. Lehenengoa ez zen bere mailan hasi, eta umoretik jarduteko gaia zen arren bertsolariak hotz hasi ziren. Lehen bi ofiziotan arabarrek konfidantza handiagoarekin kantatu zuten, eta gipuzkoarrek apalago aritu ziren.

## Saioak onena, Alberdiren bakarkakoan

Kartzelako lanean, ordea, Amaia Agirre objektu bana eman zien partaideei, eta hemen bertsolariak umore kolpe politak eskaini zituzten. Toreroaren jantzia, zezenaren kareta eta adarrak, eta zapi zuria izan zituzten jantzi eta gai. Bost minutuko tardean kopletan aritu ziren, eta bi taldeek asmatu zuten espero bezala.

Bakarkako lanean uxue Alberdik gaueko saioak onena eskaini zizun. Gaia modu berezian eman

zitzaion. Hiru hitz eman zizkion Amaiak: maitasuna, gorrotoa eta askatasuna. Genero indarkeriari egin zion erreferentzia, Gernikako emakumearen hilketara oinarri hartuta. Bertso hunkigarriak eta sinisgarriak izan ziren. Ariketa berezian txanda iritsi zenean, Manex Agirre eta Ander Lizarraldek sekulako saltsa jarri zuten.

Bukatzeke, ohikoa den moduan, bertsolariak eta entzuleak gehien estimatzen duten saioa iritsiz. Librea, taldeka, nahiadina eta nahi zuten doinu eta neurrian aritzeko aukera izan zuten. Arabarrek Alex Ubago abeslariaren kantatu batean oinarritutako doinu aritu ziren, segidila antzekoan. Gipuzkoarrek, aldez, aita-semeak tabernan daude doinuaren entzuleak dantzara atera zituzten, eta horrekin entzulearen bozka asko irabazi zituztela esan daiteke.

Kanporaketa saioetan bezala finala goizteko ordu txikietan amaitu zen, ordu biak aldera. Entzuleen artean 58 lagun ausartu ziren botua ematera, eta haien artean 38k Gipuzkoako Hontzek eraman izan zuten eta 20k Arabako Otsok eraman.

## Sariak bi taldeentzat

Ondoren, sariak banatzeko txanda iritsi zen: txapeladunordeek Gipuzkoako Bertsolare Elkarteak emaniko oroigarria eta 100 euroko saria jaso zuten Oroitz Azurmendi

Gipuzkoako Elkarteko eragile-erengandik. Txapeladunek, berriz, norik bere txapela eta 300 euroko sari bana jaso zuten Urnietako alkate Mikel Izagirre, Iñistor Biltzarreko ahaldu Joseba Lizeaga eta Larramendi Bazkuneko lehendakari Jon Unanue erengandik.

## Amaia Agirre lan eskertuz eta antolatzaileen balorazioa

Bi taldeek bere bertsoetan bereziki eskertu nahi izan zuten Amaia Agirre bertsolariak txapelketa hau antondu eta antolatzen egin duen lan bikaina.

Antolatzaileek aipatu dutenez, «lehenengo urteko txapelketa baino hotzagoa izan da bigarren hau, ikus-entzuleen aldetik partaidea %60 inguru jaitsi da». Baina bertan izan diren bertsozaleentzat txapelketa belaunaldi berriak ezagutzeko aukera ere izan da: «Alde horretatik esan behar asebeste utzi dituela hiru saioetara azal dutako bertsozaleak».

Antolatzaileek argitu dutenez, bigarren txapelketa honi amaiera egokia jartzearen, apirillean zehar *Aiurri* aldizkariak gehigarri berezia emango dute argitaratu, bertan kanporaketetan eta finalean izan diren bertso bikainenak argitaratuz. Inork gehigarri hori eskuratu nahi izanez gero *betterri@aiurri* helbidean eska dezakeela ere zehaztu dute.

## N-1 errepidetik Asuncionera zuzenean joateko sarbidea egingo dute

**Tolosa** » 8 hilabeteko epean burutuko dituzte lanak; Alde Zaharra zeharkatu behar izatea ekidingo du sarbideak.

## ERREDAKZIOA

N-1 errepidetik zuzenean Izaskun auzora joateko sarbide berri bat eraikitzeari ekingo dio Gipuzkoako Foru Aldundiak. Sarbide berriaren bitartez, N-1 errepidea eta Izaskun auzora doan GI-3421 errepidea lotuko dute. Horren bidez, eskualdeko ospitalera joan nahi duten Tolosaldeko erabiltzaileek N-1 errepidetik zuzenean sarbide bat izango dute, Tolosako Alde Zaharra zeharkatu beharrik gabe.

Lanak esleitu dituzte eta Construcciones Galdiano enpresak burutuko ditu. Obrek 1,8 milioi euroko aurrekontua dute eta 8 hilabeteko epea izango dute burutzeko.

Proiektuak jasotzen du Izaskun auzorako sarbide berri bat egitea (GI-3421). Tolosa iparraldeko lotunean, errepidearen azpiko pasabidearen ondoan (N-1, Santa Lutzi) hasiko da, eta Asuncion Klinika baino goraxeago amaituko da, Izaskun auzora doan GI-3421 errepidearekin elkartuz. Bide batez, Santa Lutzi auzoan dagoen N-1 errepidearen lotunea egokitu eta eraberrituko dute.

## Gazte Martxa aurkeztuko dute gaur Villabonan

## ERREDAKZIOA

Urtero legez, aurten ere Gazte Martxa antolatuko dute. Ekimena aurkezteko gaur arratsaldeko 19:00etatik aurrera aurkezpena egingo dute Villabonan. Hain zuzen, Udaleko balioanizteko gelan izango da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



Leitzako Herri Krosean jende ugari bildu ohi da bai errepedean baita bide ertzean ere. JAIONE ASTIBIA

## XXXI. Herri Krosean ehunka herritarrek hartuko dute parte, larunbatean

**Kirolak** » Krosean izena emateko bi aukera daude: 'www.herrikrossa.com' webgunean edo Aurrera KEn hilaren 4an bertan.

### ASIER IMAZ

Aurrera KEk antolatuta eta Leitzako Udalaren eta komertzioen laguntzarekin, XXXI. Leitzako Herri Krosa ospatuko da, larunbatean, 16:15etik aurrera.

Izena ematen duenak zazpi kategoria edukiko ditu aukeran, beti ere jaiotze urtearen arabera: benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, juniorrak, seniorrak eta beteranoak.

Ordutegiari dagokionez, larunbatean, benjaminak 16:15ean irten-go dira; 16:30ean alebinak eta infantilak; kadete eta juniorrak 17:00etan eta seniorrak eta beteranoak 17:30ean.

Dagoeneko 31. aldiz antolatuta dute herri krosean korri egin nahi duenak bi aukera ditu: egunean bertan Aurrera KEn aurkeztu eta bere izena emanez edota aurretik [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunera bere datuak sartuta.

### Distantzia ezberdinak

Irteera orduz gain, korritu beharreko distantzia ere kategori bakoitzean ezberdina izanen da. Adibidez, benjaminen 800 metro egingo dituzte, infantilek 2.500

metro eta senior nahiz beteranoek, berriz, 10 kilometro. [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunean agertzen diren datuen arabera, emakumeek distantzia laburragoak korritu beharko dituzte hainbat kategoritan. Kadeteetan, juniorretan, seniorretan eta beteranoetan adibidez 5 kilometro egin beharko dituzte.

### Partaide ugari eta afaria

Azken urteetan partaide kopuruak behera egin baldin badu ere, korrikalari ugari irtetzen dira Herri Krosean. 2006an 320 korrikalari irten ziren. XXIX. edizioan 291 eta iaz 280. Aurten ziur gehiago elkar-tuko direla irteera puntuan. Ez da ahaztu behar gauean Kroseko Aparie ere egingo dutela.



Sari banaketa oparoa egingen dute Herri Krosaren amaieran, 7 maila ezberdinetan irtego baitira korrikalariak. I. A.

## Laburrak

### Bartolo Jaiak antolatzeko batzarra bihar 19:30ean

**IBARRA** » Bartolaren Batzarrek hileko lehen ostegunetan egiten duen moduan, bihar 19:30ean, Bartolok antolatzeko batzarra egingo du Kultur Etxean. Lan taldeetako kideei eta herritarrei orohar, bertara azaltzeko eskatu diete.

### Krisiaren inguruko hitzaldia etzi 20:00etan

**LEITZA** » Atekabeltz Gaztetxean hitzaldia antolatuta du Leitzako ezker abertzaleak etzi, ostiralean, 20:00etan. *Kapitalismoaren krisia: nola egin aurre?* izango da gaia eta Mikel Garmendiak eskainiko du hitzaldia.

### Energia berrien inguruko hitzaldia etzi 19:30ean

**LEITZA** » Liburutegian *Energia berri-erabileraren aplikazioak, etxebizitzaren eta isolatutako tokiak gairi buruzko* hitzaldia egongo da etzi, ostiralean, 19:30ean. Udak Liburutegian burutuko den hitzaldian Martin Ibarra izango da hizlaria.



## 'Apustu Mundiala' larunbatean

**LEITZA** » Jon Otegi eta Joseba Zabaleta leitzarrek *Apustu Mundiala* bezala ezagutzen dena jokatuko dute hilaren 4an, larunbatean, Leitzako plazan dagoen frontoian. Hitzordua 11:00etan jarri dute. Armak raketak eta teniseko pilotak izango dira. Saria: «Musunzarren menuje jokoa». Irabazleak 30 tantu egin beharko ditu. A. IMAZ



Orduñako bailara ederra ezagutzeko aukera izan zuten ibarretarrek. HITZA

## Ibarratik Bizkaira egin dute 5. mendi irteera, ikurrina lagun

### A. IMAZ

Bezperan ordu aldaketa, nahi baino lo gutxiago eginda eta goizean eguraldi txarrarekin «ezin hobeto» pasa zuten Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak antolaturiko mendi irteerara joan zirenek. Mendiaren kontuak.

Izan ere, *Geurea Ikurriña* egitasmoaren barruan Orduñako bailara eginiko irteerak «mendi mar-txa baino irteera mendigastroso-ziokultur musikaldantzairria» zirudien antolatzailen esanetan. Beste erabateratara esanda: «Mendi: Nerbioi ibaiaren jaiotzaruntz eginiko 4 orduko buelta ederra egin genuelako. Gastro: ohi bezala mo-kadutxo bat antolatu zigutelako la-gun batzuk herritxo batean. Sozia-la: Bizkaiko lagun hauekin elkar

ezagutzeko aukera eta tertulia bixi-bixia sortu zelako. Kulturala: irteeran zehar inguruko hainbat ezaugarri ikas ahal izan zirelako, inguru horietan duela milioika urte zein animalia bizi ziren eta bar. Musikala: bazkaritxoaren os-tean alboka eta txirula jotzen eta entzuten ibili ginelako. Dantza: fandango eta ari arinak. Eta nola ez, irria: ikusi besterik ez baitago partaideek itzuleran zekarkiten irrifarretxoak, diruz ordaindu ezin daitekeen irrifarrea».

Hurrengo irteera apirilaren 26an izango dela aipatu dute antolatzailak. Balderejo dute jomugan. Mendi ibilaldi «erraza» egiteaz gain hitz konplexuen esanahiak ikasi nahi dituenak, badakiz ere egin data horretan.



9°  
6°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	12°
HOTZENA	7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraledea:** 687 410 034. ibarraledea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaaldia

■ **Amezketan.** Francisco Fajardo osteopatak hitzaaldia emango du Zumadi eskolan, 15:30ean. Osteopatiologiaren ikuspegitik, haurtzaroko gaixotasun arruntenak eta bere tratamenduak ariko da aditua. Guraso elkarteak antolatu du hitzaaldia.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek Galizara maiatzaren 11tik 17ra irteera antolatu du 255 eurotan (ez bazkideek 260 euro). Izen-ematea, elkartearen bertan.

### Kirola

■ **Tolosa.** Artikutza-Ituren (Nafarroa) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak apirilaren 5erako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, 943 652789) edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidean.

### Deialdiak

■ **Leaburu.** 55ko kintoen festa apirilaren 4ean Leaburun meza eta bazkaria bertako Ostatuan eginez. Izen-ematea, 943 671548 telefono zenbakian.

■ **Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreak aurki izango dira Tolosan. Izen-ematea Tolosako HHIn eman beharko da izena, eta azterketa maiatzaren 20an izango da, EPAn bertan

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Literatur Astean murgildurik

**TOLOSA** • Samanengo ikastetxean Literatur Astea ospatzen ari dira. Honekin bederatzigarren urtea dute eta herenegun ekin zioten, irakurketa maratoiarekin. Etenik gabe irakurtzen aritu ziren guraso, ikasle, ira-

kasle zein ikastetxeko lagunak. Euskaraz, ingelesez, erdaraz, frantsesez, italieraz, protugeraz, alemanieraz, errumanieraz, ginearrez... irakurri zuten eta lehen aldiz brailea ere erabili zuten. HITZA

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Arkaitz Garciarena (Berastegi).** Zorionak zure 6. urtebetetzean. Etxeko familia.



### Urte askoan!

**Naroa Olano (Leitza).** Gure etxeko ttirik urte 1 betetzen du gaur. Muxu handi bat etxekon partetik eta oain arte bezala seittu.



Anoetako  
Udala



Euskara  
eta  
Korrikaren  
alde

Herriko plaza z/g • 943 65 12 00

IRURAKO  
UDALA



Ongi etorri lagun!



San Migel plaza, 1 • Tel.: 943 69 13 33  
www.irura.net

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA Korrikarekin bat!



HITZAK harpidedunentzat **KORRIKA**ko  
6 kamixeta ditu

Emakumezkoen 3 kamixeta eta gizonezkoen beste 3 kamixeta.

### irabazleak:

- Aitziber Urrera (Ikaztegieta)
- Agustín Yarza (Amasa-Villabona)
- Ana Goñi (Areso)
- Jasone Ramiro (Ikaztegieta)
- Manuela Jauregi (Tolosa)
- Bixente Galarza (Amezketan)





# Korrika 16 eskualdean

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



## DENOK EUSKARAREN ALDE

**KORRIKA** Larunbatean Leitzaldetik pasa ostean, bihar 10:41ean Tolosaldean sartuko da eta herriz herri zeharkatu ostean 13:17 aldera agurtuko gaitu Korrika 16k. Apirilaren 5ean bukatuko da Gasteizko Andra Maria Zuriaren Plazan **II-V**

**E Elkarrizketa**

**LIERNI ALKORTA** Korrikaren eskualdeko koordinatzailea

**Korrika** » Bi urtez behin egiten den euskararen aldeko festa erraldoi honen antolatzaile taldeko kidea da Lierni Alkorta, eskualdeko koordinatzailea, hain zuzen ere.

Lierni Alkorta (Andoain, 1986) Korrikaren Tolosaldeko koordinatzailea da. Azken hilabete hauetan lanez lepo dabil Korrika 16 Tolosaldean ezagutzera eman eta bertatik inongo arazorik gabe igaro dadin. Berarekin elkartu gara Korrikaz hitz egiteko.

**Jada martxan da Korrika 16 baina noiz hasten zarete prestaketa lanekin?**

Lehenengo prestakuntzak, nazional mailan, aurreko udaratik hasten dira. Ondoren, eskualde mailan, lehenengo eskaerak eta bideraketak AEKtik (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) bertako irakasleen bidez egiten dira. Ni neu urtarirlean hasi nintzen eta apirilaren 5a bitarte izango dut lana. Ondoren balorazioak etorriko dira.

**Gauza asko lotu behar eta lan handia izango da.**

Aurretik lan handia dago. Publizitatearekin girotzen aspaldi hasi ginen eta hasieran ordu gutxiarekin hasten zara baina gero batzordeak sortu behar dira, aurreko urteetako kontaktua lotu...

**Korrikaren Tolosaldeko koordinatzailea zara. Zein da zure lana?**

Korrika eremuan gure eskualdea, Ikaztegietatik hasi eta Andoainera hartzen da. Nire lana pixka bat denetik egitea da, alde batetik batzordeak sortzea. Kontaktuekin harremanetan jarri eta ahalik eta herri gehienetan batzordeak sortzea da. Batzorde horiek mugiarazte, dugun publikitatea banatu herrietan jartzeko, ideia ezberdinak eman, proposamenak landu... Bestaldetik, arduragorena edo nolabait esateko, eskualdeko arduradunarekin ibilbidea ondo lotu, kilometro guztiak lotu, erreferentziak hartu, herri bakoitzari jakinarazi zenbat kilometro dituzten, kilometroen salmeta bideratu eta hau

# «Kale guztiak bete eta hemen gaudela erakutsi behar dugu»



E.MAZ

gehienetan herrietako batzordeen bidez egiten da. Aurreko urteetako koei luzatu eta berriei aukera eskaini, kanpaina ezberdinak bideratu, korrika laguntzaile, herrietan ahalik eta norbanako gehien biltzen saiatu, korrika lagun komertzioetako bereziki batzordeen bidez egiten da, eta nik hartzen dut ia herri gehienetan enpresen ardurak.

**Herriz herri Korrika dela eta euskaltzaleek egiten duten lana eskertzekoa izango da ezta?**

Lana eta laguntza beti da eskertzekoa. Herrietako jende hori gabe ezinezkoa litzateke eta pila bat eskertzen da. Eskualdean diferentzia antzematen da. Ibilbidea pasatzen den herrietan gertuagotik bizitzen dute eta pasatzen ez den kasuetan, eta herri asko dira, jende mugitzea asko kostatzen da.

**Laguntzerako orduan erantzun ona izaten da jendearen aldetik?**

Denetarik dago. Herri bakoitza mundu bat da eta urte batzuetan zenbat herritan erantzun oso ona izan da eta beste batzuetan jaitsi egin da edo alderantziz. Bestalde, herri batzuetan urte urte jende berbera dago eta nekatu ere egiten da. Gure erronka jada nekatu diren ordezkoak bilatzea da.

**Korrika zer den ez dakien bati zer dela esango zenioke?**

Kanpotik bizituta euskaltzale baten izugarria da hor egotea eta bertan parte hartzeko aukera izatea. Eta barruan zaudenean emozioa bikoitza da, gauzak ondo ateratzen ari direla, badatorrela eta kombentzita nago ondo bukatuko dela. Euskalzaletasun minimo bat duenarentzako festa bat izan behar da korrika. Nik eta jende askok, euskara gabe herri hau ez dugu ulertzen eta nik hori transmitituko nieke. Korrika euskararen aldeko beste festa bat gehiago dela.

**16. Korrika da baina jada 29 urte dira korrika ospatzen. Noiz arte jarraitu beharko da?**

Oraindik bide asko dago egiteko. Beti sortzen dira eronka berriak eta euskarak beti edukiko du aurrera egin beharra bizi duen egoerara bizita, egoera ideal hori oraindik urrutu ikusten da.

**Helburuetako bat dirua biltzea da. Krisiak izan du eraginik?**

Pentsatzen dugu zerbait igarriko dela baina erantzun ona ari gara jasotzen. Jendeak ahalegin berezia egiten du Korrikan parte hartu eta ahalik eta babesik handiena emateko. Ez ditugu momentuz datu guztiak baina kilometroen salmenta ondo joan da eta korrika laguntzaile kanpaina ere enpresa eta ko-

mertzioetan ondo doa eta itxaropentsu gaude.

**Aurtengo leloa: 'ongi etorri!'. Eskualdean oraindik jende askori esan behar diogu?**

Zoritzarrez bai. Oraindik ere ongietorria emateko jende asko daukagu. Aurten bereziki etorkinei eta

**Zoritzarrez oraindik ere ongietorria emateko jende asko daukagu eskualdean**

**Korrika pasatzen ez den herriak ere batzordeetan parte hartzera animatu nahi genituzke**

euskarara itzuli diren horiei bideratuta dago eta etorkinen kasuan, geroz eta gehiago ditugu eta horiei ongietorria ematen jarraitu beharko dugu, eta horiek euskarara mugiltzen beraz, leloa aproposa da.

**Zer lortu nahi da 16. Korrikarekin?**

Helburu ekonomikoari dagokionez aurten Nafarroa, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako eskualtegi eta gau eskolak diruz laguntzea da AEKak aurrera egin dezan. Administratiboki bizi duten egoe-

ran nahiko latza da eta erakundeetatik jasotzen duten babes urria.

**Bihar eskualdean igaroko da. Zer esan edo eskatu nahi diezu euskaltzaleei?**

Jendeari eskatuko diogu parte hartzeko. Ordua ona da, egunez da eta ahal duen gehienak eskualdeko kaleetara edo beraien herriko kaleetara gertura daitezela. Lana dutenak eta tartetxo bat har dezaketanak ere atera daitezela. Korrikari bultzada bat emateko eskualdeko eta orokorrean Euskal Herriko kale guztiak euskaltzalez betetzea lortu eta hemen gaudela erakutsi behar dugu. Bestalde, eskerrak eman nahi nizkieke parte hartu duten guztiei, eskualdean prestaketa lanetan ibiltzen direnei eta noski dirua eman eta kilometroa erosi dutenei. Beste urteetara begira, eskualdean ditugun herri txiki horiek animatuko nituzke, oso zaila egiten baitzaigu bertako jendearekin harremanetan jarzteaz. Nahiz eta jakin herri horietatik Korrika ez dela pasatzen, korrika Euskal Herri osoarena dela eta ahalgina egin dezatela bai batzordeetan parte hartuz edota herrietan ekimanan sortuz. Eta egunean bertan, kotxea hartu eta gertuen duten herrira jaitsi eta parte har dezatela.







Martxoan zehar Korrika dela eta, eskualdeko hainbat herritan ekintza ezberdinak egon dira eta besteak beste, 'Bidai Intimoak' dokumentala ikusteko aukera izan da. Bihar Tolosaldeko pasatzen dela eta, beste hainbat ekintza daude.

## Ika ika ika, hemen dator Korrika

**K**orrika 16 eskualdera iritsi-ko dela eta, zeharkatzen den zenbait herritan ekintza ezberdinak prestatu dituzte Korrika aurretik edo ostean. Hala ere, nahiz eta Korrika ez pasa, Asteasu, Berastegi, Amezketa edota Albizturko eskolek, beren ikasleekin besteak beste Korrika Txikia egingo dute.

### Ikaztegieta

■ Korrika igaro ostean eskolako haurrentzat hamaiketako herriko plazan.

### Altzo

■ Korrika Txikia egingo da eskolan

eta ondoren plazan korrikako abestia abestuko dute. Etzi, *Bidaia Intimoak* udaletxean 18:30ean.

### Tolosa

■ Korrika herritik pasa ostean 12:30ean, indarrak berreskuratze-ko hamaiketako Ero- Etxe elkar-teen izango da.

### Anoeta

■ 12:00etan Herriko Plazan elkar-tuko dira guztiak Korrikan parte hartzeko.

### Irura

■ Korrika Irurara iritsi aurretik, herriko haurrek indarrak hartzeko

aukera izango dute Herriko Plazan. Hamaiketako egiteko aukera izango dute.

### Zizurkil

■ 15:00etan Korrika Txikia egingo dute eta plazan amaituko dute saioa. Ondoren ipuin kontalariak izango dira. Arropa postua ere jarriko dute inork Korrikaren materiala erosi nahi izanez gero.

### Aduna

■ Korrika pasa ostean Herriko eskolan festa eta jolasak izango dituzte. Eskolatik ateratzean, merienda guztientzat, herriko elkarteen eskutik.

### Asteasu

■ Egunean bertan parte hartuko badute ere Villabonan, Apirilaren 3an, Korrika Txikia egingo dute Larraul eta Asteasuko haurrek. Larrauldik abiatu eta Asteasuko plazan bukatuko dute. Pankarta eta lekukoa izango dituzte eta plazan ikasle diren bi etorkinek eta guraso batek lekukoak daraman mezua irakurriko dute. Eta jarraian festatxo bat egingo dute bertso eta kantuekin.

### Berastegi

■ Aste guztian zehar Korrikako abestia izan dute lagun Berastegi-ko eskolako haurrek eskolako sar-

tu Irtenetan eta abestu ere egin dute. Bihar aldez, Korrika Txikia egingo dute herriko Plazan.

### Amezketa

■ Ostiralean Korrika Txikia egingo dute eskolako haurrek lekuko eta guzti. 15:30ean aterako dira udal-tertxe aurretik, birilgunera joango dira eta jarraian eskolan bukatuko dute. Ondoren Guraso Elkartearen eskutik meriendatxo bat egingo dute.

### Albiztur

■ Korrika Txikia egingo dute eskolako haurrek eskualdetik igarotzen ari den bitartean.

## A Argazki zaharrak



## Aurreko urteetako Korrikaren hainbat une

**KORRIKA** ● Korrika 13, 14 eta 15 ean ateratako argazkiak ditugu hauek. Lehen argazkia duela bi urtekoa da eta Alegiatik pasatzen ari dira korrikalariak eta 15. Korrika izan zen hura. Egunez pasa zen baina eurik ez zuen hutsik egin nahi izan Tolosaldea gurutzatu zuen unean. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, euskaltzale ugari bildu zen Korrikarako prest baita bide bazterre-

tik animoak emateko ere. 2005. urtean izan zen 14. Korrika gauez pasa zen guretik eta argazkia Villabona eta Zizurkil artekoa da. Azkena, 2003. urtekoa da eta argazkirik zaharrena dugu. 13. Korrikako argazkia Tolosan ateratako da eta duela sei urte ere gauez pasa zen eskualdetik, hala ere, jendeak oso erantzun ona eman zuen. HITZA